

IRAKURKETA KLUBEN JARDUTEKO PROZEDURA:

ohiko galderak

Aurkibidea

ZER LIBURU MOTA DAUDE KLUBETAN?	2
NOLA EROSI KLUBETARAKO SORTA BERRIAK?	2
NORK KATALOGATZEN DITU SORTAK?	2
NORK EMATEN DIO ALTA SORTARI?.....	3
NOLA EMAN ALTA SORTEI ABSYSNETEN?	3
NON GORDETZEN DIRA SORTAK?	6
NOLA ESKATU SORTA BATEN MAILEGUA?	7
NOLA BIDALI SORTA BAT ESKATU DUEN LIBURUTEGI BATERA?	9
NOLA ITZULI SORTA GORDETZEN DUEN LIBURUTEGIRA?	11
SORTA BAT MAILEGUAN IZATEKO GEHIENEZKO EPERIK DAGO?.....	11
IRAKURKETA KLUBETAKO PARTAIDEAK EZ DIREN LIBURUTEGIETARA MAILEGATU AHAL DIRA SORTAK?	11
PARTAIDE BERRIAK ONAR DAITEZKE?	12
SORTAK XAHUTU AHAL DIRA?.....	12
NORK EGUNERATZEN DITU DRIVEKO DOKUMENTUAK?	13
ZER EGIN BEHAR DA ARAZOAK DAUDENEAN?.....	13

IRAKURKETA KLUBEN JARDUTEKO PROZEDURA: ohiko galderak

ZER LIBURU MOTA DAUDE KLUBETAN?

Bi mota daude: liburu baten 20 ale dauzkatena, eta irakurketa errazeko sortak (errazago ulertzen diren dokumentuak, irakurmen-arazoak dituzten pertsonentzat erabilgarriagoak), gehienetan 10 ale dituztenak.

Bi liburu moten barruan euskarazko eta gaztelaniazko liburuak aurki ditzakegu.

NOLA EROSI KLUBETARAKO SORTA BERRIAK?

Liburutegi partaide bakoitzak urtero sorta bat gutxienez erosteko konpromezua bete behar du.

Sorta berri bat erosi aurretik, liburutegi bakoitzak Jon Etxaideri (Ignacio Aldecoa Kultura Etxekoari) eta Elena Revillari (Liburutegien Zerbitzukoari) liburuaren izenburua eta egilea jakinarazi beharko die, liburutegi bik edo gehiagok liburu berdina eros ez dezaten.

Irakurketa errazeko sorten erosketak sustatuko dira, gizarte-zeregin garrantzitsua betetzen dutelako eta biltegi-arazo gutxiago ematen dutelako, ale gutxiago edukitzeagatik.

OHARRA: *eLiburutegia plataformaren erabilpena ere bultzatuko da Irakurketa Klubetarako. Liburutegi Zerbitzuari liburu baten aldibereko lizentziak eskatu ahal zaizkio pertsona talde batek erabil ditzan, 21 egunetako lizentziak, beste 21 egunetara zabal daitezkeenak (informazio gehiago lortzeko, Liburutegien Zerbitzuekin harremanetan jarri: liburutegi-zerbitzua@euskadi.eus)*

NORK KATALOGATZEN DITU SORTAK?

Sorta berri bat erosten denean bi kasu gerta daiteke:

- Erosi duen liburutegiak katalogatzeko baimena du: sorta katalogatu behar du.
- Erosi duen liburutegiak **ez** du katalogatzeko baimenik: liburu katalogatzeko behar diren datuak Liburutegien Zerbitzuari, Elena

Revillari hain zuzen ere, bidali beharko dizkio (derrigorrezko eremuak jasotzen dituen txantiloia Zerbitzutik bidaliko da).

Dena den, zirkulazioan jarri baino lehen sorta katalogatu behar da ABSYSNETen eta alta eman behar zaio. **INPORTANTEA:** katalogazioa eta alta aurretik, Elena Revillari eta Jon Etxaideri sortari buruzko informazioa bidali behar zaie, sortari zenbaki bat eman diezaioten eta Egutegia dokumentuan eta sorta-zerrendetan sar dezaten (ikusi behean **Nork eguneratzen ditu Driveko dokumentuak?**).

NORK EMATEN DIO ALTA SORTARI?

Erosi duen liburutegiak eman behar dio, non katalogatu den kontuan hartu gabe.


Sortaren eta ale bakoitzaren alta behin emanda, liburutegi bakoitzak Ignacio Aldecoa Kultura Etxera bidali behar du bere sorta, edo bere biltegi propioan gorde. Hori egin ondoren, sorta mailegatu ahal da.

NOLA EMAN ALTA SORTEI ABSYSNETEN?

1. ABSYSNETen sartu

Liburutegiek Irakurketa Kluba Liburutegi Birtualeko erabiltzaile eta pasahitz bana dute. Horiek erabiliz sartu beharko da ABSYSNETen:

<http://www.katalogoak.euskadi.eus/elsn/inicio.htm>




Liburutegi Birtualera sartuko da:

2. Jadanik katalogatuta dagoen liburua bilatzen da

3. Fitxatik, alta ematen zaie aleei, "Gehitu" botoia sakatuz

Zerrenda Xehetasuna Bildu



Ale berri bat gehitzean, balio lehenetsiak hauek izango dira: "IK Liburutegi Birtuala" (01001) eta sukurtsala "Irakurketa Kluba" (345):

Alea		Marc oharrak	Beste datu batzuk
Biblioteka	01001 IK Liburutegi Birtuala	Barra-kodea	0
Sukurtsala	345 Irakurketa Kluba	Erregistro-eguna	13/05/2022
Kokagunea		Erregistro-zk.	
Ale-mota		Signatura	
Egoera		Signatura osagarria	
Alearen 1go kodea		Liburukiaren identifikatzailea	
Euskarria		Balioa	
Jatorria		Inbentario-data	
Ale-egoera	C Erabilgarria	Egoeraren aldaketa	13/05/2022
Iraungipen-eguna		Berragaldia data	
Hautazko zenbakia			
Testua			
Mallegu-mugimendua mezua			

Datuak honela beteko dira:

-**Kokagunea**. IKL (Irakurketa Kluba Liburutegi Birtuala) zabalgarrian aukeratu.

-**Ale-mota**. DMO (Monografiak-Irakurketa Kluba) aukeratu.

-**Jatorria**. Aukeratuko dugu **erosketa** liburutegiaren diruarekin aleak erosi baditugu. Liburutegien Zerbitzutik lagundu izan badira, **Eusko Jaurlaritza** aukeratuko da.

-**Testua**. Alta ematen duen liburutegiaren izena jarriko da.

-**Erregistro-zk.** Inoiz ez dira erregistratuko ez sortak ez aleak.

-**Signatura**. Ezberdina izango da sorta-motaren arabera (irakurketa erraza/irakurketa erraza ez).

a) Irakurketa errazekoak ez diren sortak:

- Sortari dagokion "alea" gehitzean *Signatura* eremua datu hauekin beteko da:

LOTE + sortaren zenbakia (Google Driven Liburutegien Zerbitzuak emandakoa) eta signatura osagarria **IK** letrez, **marratxoaz, sorta osatzen duten ale-zenbakiaz eta "ale"** hitzaz (tartean hutsunerik gabe) osatuko da:

Alea		Marc oharrak	Beste datu batzuk
Biblioteka	01001	IK Liburutegi Birtuala	Barra-kodea 9854254
Sukurtsala	345	Irakurketa Kluba	Erregistro-eguna 31/12/2020
Kokagunea	IKL	Irakurketa Kluba Liburutegi Birtuala	Erregistro-zk.
Ale-mota	SOR	Sorta-Irakurketa kluba (M)	Signatura LOTE 430
Egoera			Signatura osagarria IK-20ale
Alearen Igo kodea	SPA	Gaztelaniaz	Liburukiaren identifikatzailea
Euskarria	AIN	Papera	Balioa
Jatorria	AER	Erosketa	Inbentario-data
Ale-egoera	C	Erabilgarria	Egoeraren aldaketa 24/08/2021
Traungipen-eguna			Berrogeialdiaren data 23/08/2021 23:59
Hautazko zenbakia			
Testua	Arrasate		
Mailegu-mugimendua	mezua		

- Sorta osatzen duten aleetako bakoitza gehitzean *Signatura* eremua datu hauekin beteko da:
IK + egilearen abizenaren lehenengo 3 letra + izenburuaren lehenengo 3 letra
 Dena letra larriz idatzi behar da. Adibidez: **IK LUI NIÑ** (liburua da "Los niños perdidos", Valeria Luisellirena).

Alea		Marc oharrak	Beste datu batzuk
Biblioteka	01001	IK Liburutegi Birtuala	Barra-kodea 9854322
Sukurtsala	345	Irakurketa Kluba	Erregistro-eguna 31/12/2020
Kokagunea	IKL	Irakurketa Kluba Liburutegi Birtuala	Erregistro-zk.
Ale-mota	DMO	Monografiak-Irakurketa Kluba (M)	Signatura IK LUI NIÑ
Egoera			Signatura osagarria
Alearen Igo kodea	SPA	Gaztelaniaz	Liburukiaren identifikatzailea 20
Euskarria	AIN	Papera	Balioa
Jatorria	AER	Erosketa	Inbentario-data
Ale-egoera	C	Erabilgarria	Egoeraren aldaketa 31/03/2021
Traungipen-eguna			Berrogeialdiaren data 30/03/2021 23:59
Hautazko zenbakia			
Testua	Arrasate		
Mailegu-mugimendua	mezua		

b) Irakurketa errazekoak diren sortak:

- Sortari dagokion "alea" gehitzean *Signatura* eremua datu hauekin beteko da:
IE-LF + sortaren zenbakia-letra (Google Driven Liburutegien Zerbitzuak emandakoa) eta signatura osagarria **IE-LF** letrez, **marratxoaz, sorta osatzen duten ale-zenbakiaz eta "ale"** hitzaz (tartean hutsunerik gabe) osatuko da:

Alea	Marc oharrak	Beste datu batzuk
Biblioteka	01001	IK Liburutegi Birtuala
Sukurtsala	345	Irakurketa Kluba
Kokagunea	IKL	Irakurketa Kluba Liburutegi Birtuala
Ale-mota	SOR	Sorta-Irakurketa kluba (M)
Egoera		
Alearen 1go kodea	BAQ	Euskaraz
Euskarria	AIN	Papera
Jatorria	AER	Erosketa
Ale-egoera	C	Erabilgarria
Iraungipen-eguna		
Hautazko zenbakia		
Testua	Errenteria	
Mailegu-mugimendua	mezua	
Barra-kodea	8472337	
Erregistro-eguna	05/03/2015	
Erregistro-ak		
Signatura	IE-LF 8-A	
Signatura osagarria	IE-LF-10ale	
Liburukiaren identifikatzailea		
Balioa		
Inbentario-data		
Egoeraren aldaketa	05/03/2015	
Berregialdiaren data		

- Sorta osatzen duten aleetako bakoitza gehitzean *Signatura* eremua datu hauekin beteko da:
IEK + egilearen abizenaren lehenengo 3 letra + izenburuaren lehenengo 3 letra
Dena letra larriz idatzi behar da. Adibidez: **IEK MOR SAN** (liburua da "Santiago bidearen misterioa", Fernando Morillorena).

Alea	Marc oharrak	Beste datu batzuk
Biblioteka	01001	IK Liburutegi Birtuala
Sukurtsala	345	Irakurketa Kluba
Kokagunea	IKL	Irakurketa Kluba Liburutegi Birtuala
Ale-mota	DMO	Monografiak-Irakurketa Kluba (M)
Egoera		
Alearen 1go kodea	BAQ	Euskaraz
Euskarria	AIN	Papera
Jatorria	AER	Erosketa
Ale-egoera	C	Erabilgarria
Iraungipen-eguna		
Hautazko zenbakia		
Testua	Errenteria	
Mailegu-mugimendua	mezua	
Barra-kodea	8473199	
Erregistro-eguna	06/03/2015	
Erregistro-ak		
Signatura	IEK MOR SAN	
Signatura osagarria		
Liburukiaren identifikatzailea	3	
Balioa		
Inbentario-data		
Egoeraren aldaketa	06/03/2015	
Berregialdiaren data		

-Liburukiaren identifikatzailea. Sortako ale bakoitzari gehituko zaio zenbaki korrelatibo bat, identifikatzeko eta besteetatik ezberdintzeko.

Azkenik, aleei liburutegiaren **zigilua** jarriko zaie. **Liburuaren atarian derrigorrez.** Gainera, liburutegi bakoitzak aleak zigilatu ahalko ditu, beren irizpideen arabera.

Hemen bukatzen da alta prozesua. Sortak gorde ahal dira.

NON GORDETZEN DIRA SORTAK?

Sorta gehienak Ignacio Aldecoa Kultura Etxean daude, baina batzuk erosi zituen liburutegian gordeta daude. Honela bada, "Sortak-lotes" Excelean kokapena adierazten da, izenburuaren ondoan. Ezer adierazten ez bada, sorta Ignacio Aldecoa Kultura Etxean dago.

Liburutegi bakoitzak erabakiko du bere sorta Ignacio Aldecoa Kultura Etxera bidali (mezularitza zerbitzuaren bitartez, Jon Etxaiderentzat) edo bere biltegi propioan gorde.

NOLA ESKATU SORTA BATEN MAILEGUA?

1. **Irakurketa Kluben Google Driven sartu.** Egiaztatu "Egutegia... [aurtengo urtea]" Excelean beste liburutegi batek ez duela sorta hori erreserbatu, eta Excel orrian apuntatu erreserba: interesatzen zaizkigun hilabeteetan gure liburutegiaren izena edo udalerrria jarriko dugu. Jarraian hilaren eguna, jakin badakigu. Adibidez, Eibarreko liburutegiak martxoaren 1etik maiatzaren 25era arte sorta bat erreserbatu nahi du; honela adieraziko du:

MARTXOA	APIRILA	MAIATZA
2022	2022	2022
III	IV	V
1 EIBAR	EIBAR	EIBAR 25

Honela sorten mailegua hobeto aprobetxatu ahal da.

2. **"Sortak-lotes" Excelean sartu sorta non gordeta dagoen ikusteko** eta zein liburutegitara eskatu jakiteko.
3. **Mailegua eskatu:**
 - a. **Sorta Ignacio Aldecoa Kultura Etxean badago, Liburutegi Birtualaren ABSYSNETen bidez egiten da eskaera.** Horretarako *ikluba* erabiltzaileaz sartuko gara.

absys net

baratz

versión 2.2

Usuario:

Contraseña:

Copyright © 2003-2017
Baratz. Servicios de Teledocumentación S.A

“Mailegu-mugimendua / Mailegu-eskaera” atalean sartuko gara:

absys net

MAILEGU ESKAERA | BILATU

Biblioteka 01001 IK Liburutegi Birtuala Sukurtsala 345 Irakurketa Kluba

Irakurlearen xehetasunak

Irakurlea Hautazko zenbakia

Biblioteka Irakurle-mota

Sukurtsala Iraungipen-eguna

Eskatutako art. Ordaindu gabekoa Gabet

Mezua

Alearen xehetasunak

Dagokion titulu-zk.

Barra-kodea Hautazko zenbakia

Biblioteka Ale-mota

Sukurtsala Signatura

Kokagunea Signatura osagarria

Eskaera

Mailegu-eguna Azken eragiketa

Erakusmahaiia Egoera

Itzultzeko sukurtsala

Oharra

“Irakurlearen xehetasunak” erlaitzean, *Irakurlea* eremuan, sorta eskatzen duen liburutegiaren txartelaren zenbakia (liburutegi bakoitzak berea du) edo sorta eskatzen duen erakundearena (Aranbizkarrako Adinekoentzako Zentroa, adibidez) sartzen da.

Biblioteka 01001 IK Liburutegi Birtuala Sukurtsala 345 Irakurketa Kluba

Irakurlearen xehetasunak

Irakurlea 120028585 X CENTRO DE MAYORES ARANBIZKARRA, CENTRO DE MAYORES ARANBIZKARRA Hautazko zenbakia 120028585

Biblioteka Irakurle-mota

Sukurtsala Iraungipen-eguna

Eskatutako art. Ordaindu gabekoa Gabetze-data

Mezua

“Alearen xehetasunak” erlaitzean, *Barra-kodea* eremuan, sortarena sartzen da. Banakako aleen eskaerak ez dira egin behar.

“Eskaera” erlaitzean, *Erakusmahaiia* eremuan, eskatzen duen liburutegiarena aukeratu (lehenetsita agertzen da).

MAILEGU ESKAERA | BILATU

Biblioteka 01001 IK Liburutegi Birtuala Sukurtsala 345 Irakurketa Kluba

Irakurlearen xehetasunak

Irakurlea 114706349 EIBARKO UDALA, JUAN SAN MARTIN LIBURUTEGIA Hautazko zenbakia 114706349

Biblioteka 01001 IK Liburutegi Birtuala Irakurle-mota

Sukurtsala Iraungipen-eguna

Eskatutako art. Ordaindu gabekoa Gabetze-data

Mezua

Alearen xehetasunak

Dagokion titulu-zk. Hautazko zenbakia

Barra-kodea Ale-mota

Biblioteka Signatura

Sukurtsala Signatura osagarria

Kokagunea

Eskaera

Mailegu-eguna Azken eragiketa

Erakusmahala Egoera

Itzultzeko sukurtsala

Oharra

b. Sorta beste liburutegi batean badago, gure ABSYSNETetik eskatu behar dugu mailegua (ez Liburutegi Birtualaren ABSYSNETetik), liburutegien arteko mailegu arrunta izango balitz bezala.

4. **ABSYSNETen sorta eskatu dela mezu elektronikoa bat bidali.** Mezu hau BETI bidaltzen da bai Ignacio Aldecoa Kultura Etxera casadeculturaignacioaldecoa@gmail.com bai Elena Revillari e-revilla@euskadi.eus. Sorta Ignacio Aldecoa Kultura Etxean gordetzen ez bada duen liburutegiaren helbidea ere jartzen da kopian. Honela eskaera jasota geratzen da eta sortaren mugimendua arakatu ahal da.

5. **Sorta eskatu duen liburutegira iristen denean, osoa eta egoera onean iritsi dela aztertu behar da.** Edozein gertakari (akatsa kutxaren edukian, direnak baino ale gehiago edo gutxiago iristea, aleren bat hondatuta egotea...) bai Ignacio Aldecoa Kultura Etxekoei bai Elena Revillari bai sortaren liburutegi jabeari lehenbailehen jakinaraziko zaie. Baita aurreko liburutegi eskatzaileari, kutxa handik zuzenean etorri bazen.

OHARRA: Eusko Jaurlaritzaren mezularitza-zerbitzuak asteazkenetan pasatzen da Kultura Etxetik, sortak jasotzera.

NOLA BIDALI SORTA BAT ESKATU DUEN LIBURUTEGI BATERA?

1. **Ignacio Aldecoa Kultura Etxean dauden sortak Liburutegi Birtualaren ABSYSNETen bidez mailegatzen dira: *ikluba* erabiltzaileaz sartu. Beste liburutegi batean kokatuta dauden sortak ABSYSNET "arrunta"-tik mailegatzen dira.**

2. Liburutegiak jaso dituen sorten mailegu-eskaerak egiaztatu. Horretarako "Mailegu-mugimendua / Egin gabeko eskaerak" atalean sartu:

Egoera	Kok.	Barra-kodea	Titulua	Signatura	Bz. etik. -os.	Mailegu-eguna	Erakusmahala
--------	------	-------------	---------	-----------	----------------	---------------	--------------

Eskaera bat egin badigute agertuko zaigu.

Ezer izapidetu aurretik egiaztatu behar da kutxa bere lekuan dagoen, eta hartu behar da.

"Mailegu-eskaera" atalean, "Alearen xehetasunak" erlaitzean, eskatutako sortaren barra-kodea sartu behar da (*Barra-kodea* eremua). Eta Ok (botoi berdea) sakatu. Jarraian, "Aldatu" aukeratu == "Egoera" == Norako bidea == Ok (botoi berdea). "Egin gabeko eskaerak" atalean sortaren eskaera hau ez da jadanik agertuko.

Egoera	Bilaketa ejiten
B	Bilaketa ejiten
T	Norako bidea
E	Jasoa
-	Ez da agertzen

3. Kutxan adierazten da:

- Liburutegi jasotzailearen helbidea (harremanetan jartzeko datuak <https://www.euskadi.eus/euskadiko-liburutegi-publikoen-direktoria/web01-a2libzer/eu/> ikus daitezke)

Kutxa bakoitzean sortaren zenbakia eta liburuaren izenburua daude, ez da gehiagorik jarri behar.

4. Bidalketa egiten da.

NOLA ITZULI SORTA GORDETZEN DUEN LIBURUTEGIRA?

ABSYSNETen sortaren itzulketa egiten duenean, liburutegiak posta elektronikoen bidez abisatu behar die, BETI, bai Ignacio Aldecoa Kultura Etxekoei bai Elena Revillari. Sorta Kultura Etxean gordetzen ez bada gordeta zuen liburutegiaren helbidea ere jarri behar da kopian.

Mailegu-eskaera egiteko erabili zen ABSYSNET beretik bueltatzen dira aleak.

ITZULKETAK | ITZULKETAK

Biblioteka 01001 IK Liburutegi Birtuala
Sukurtsala 345 Irakurketa Kluba
Itzultzeko eguna 23/05/2022 09:17

Irakurlearen xehetasunak

Irakurle-zk.
Biblioteka Sukurtsala
Irakurle-mota Itz. eguna
Etxean mailegatutako art. Ordaindu gabekoa Gabetze-data
Mezua

Alcaren xehetasunak

Ert.	Irakurle-mota	Ale-mota	Sukurtsala	Bar.K.	Titulua	Maileg.-eg.	Itz.-eg.	Isuna
------	---------------	----------	------------	--------	---------	-------------	----------	-------

Sartu barra-kodea

Oharra: beste liburutegi batek sorta bera ondorengo hilabeteetarako eskatuta badauka, ez da beharrezkoa Ignacio Aldecoa K.E.ra itzultzea, liburutegi eskatzaileari bidali behar zaio zuzenean. Hala eta guztiz ere, BETI jakinarazi behar da sorta liburutegi batetik beste batera doala, Ignacio Aldecoa Kultura Etxekoei eta Elena Revillari abisatuz. Eta BETI apuntatu beharko da, erreserba modura, Excelean, eta BETI eskatu beharko da mailegua ABSYSNETetik. Hau da, betiko prozedurari jarraitzen zaio, aldatzen den bakarra hau da: kutxa ez da Ignacio Aldecoa Kultura Etxetik pasatzen, eta sorta maileguan zeukan liburutegiak mezu elektronikoa bat bidali beharko du mailegu-eskaera bukatzeko, eta horrela sorta birbidali zaion liburutegiak dagokion mailegu-eskaera egitea ahalbidetuko da.

SORTA BAT MAILEGUAN IZATEKO GEHIENEZKO EPERIK DAGO?

Epea hiru hilabeteetik gorakoa ez izatea gomendatzen da, beste liburutegiei sorta berbera eskatzeko aukera emateko.

IRAKURKETA KLUBETAKO PARTAIDEAK EZ DIREN LIBURUTEGIETARA MAILEGATU AHAL DIRA SORTAK?

Printzipioz, ez. Liburutegi batek bere jabetzakoa den sorta bat bere gordailuan badu, eta mailegatu nahi badu, egin dezake, mailegu horren ardura hartuz eta egutegian bere izenean erreserbatuz. Baina ez dira sortak mailegatuko Ignacio Aldecoa Kultura Etxetik, Komisioak erabaki ezean, ohiz kanpoko baldintzak gertatzen badira (adibidez, xahutuko diren sortak baldin badira).

PARTAIDE BERRIAK ONAR DAITEZKE?

Bai, interesa duten liburutegiei beharrezko informazioa bidaliko die Liburutegi Zerbitzuak (Elena Revillak). Partaide berri bakoitzari eskatuko zaio, hasteko, sorta bat erostea.

Erosketa eta katalogazioa behin jakinarazita, bai Liburutegi Zerbitzuari bai Ignacio Aldecoa Kultura Etxeari, Elena Revillak emango dizkio liburutegi partaide berriari erabiltzaile espezifikoko bat eta pasahitz espezifikoko bat, ABSYSNETen sortari eta aleei alta emateko.

Erabiltzaile horretaz liburutegiak Gmail kontu bat sortuko du. Adibidez: ***ermuaik@gmail.com***

Gmail kontua behin sortuta, Liburutegi Zerbitzuak gonbidapena luzatuko dio liburutegiari, ***Google Driven*** dagoen informazio guztia ikus dezan.

OHARRA: *normalean, Liburutegi Zerbitzuak ekainean bidaltzen zien mezu bat liburutegi guztiei, Irakurketa Klubetan interesa dutenek parte hartzeko aukera izan dezaten. Azken bi urteotan ez da horrela egin, pandemia dela kausa eta Klubetako eredu berriz definitzeari ekin diogulako.*

SORTAK XAHUTU AHAL DIRA?

- Ignacio Aldecoa Kultura Etxean dauden sortak: baten edo askoren xahupena Komisioak argudiatu eta erabaki beharko du. Sorta osoak eskainiko dira, printzipioz, Klubetako liburutegi partaideei. Liburutegiek interesa ez badute, sorta xahutuko da eta ale solteak eskainiko zaizkie Sarearen liburutegi guztiei, eta ABSYSNETen ere xahupen-prozesua egingo da.
- Liburutegi partaideen gordailuetan dauden sortak: xahupena egiteko erabakia jabetza duen liburutegiak hartu beharko du. Liburutegi batek sorta bat xahutzea erabakitzen badu, osoa eskaini behar die Klubetako beste liburutegiei. Liburutegirik interesatuta ez badago, xahutuko da eta ale solteak eskainiko

dira, xahupen-prozesu osoa ABSYSNETen ere eginez (ikusi "Aleen xahupenerako gida": https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/eips_dokumntazioa/eu_def/adjuntos/Xahuketa_baq.pdf)

NORK EGUNERATZEN DITU DRIVEKO DOKUMENTUAK?

Oro har, eta liburutegi bakoitzak egiten dituen erreserbak salbu, egutegiak eta sorten zerrendak Liburutegi Zerbitzuak (Elenak) eta Ignacio Aldecoa Kultura Etxeak (Jonek) eguneratzen dituzte, Komisioaren laguntzaz. Hala ere, liburutegi batek akatsaren edo hutsuneren bat aurkitzen badu, lehenbailehen jakinarazi behar du.

Dena den, **sorten zenbakiak Liburutegi Zerbitzuak emango ditu**, hutsik dauden zenbakiak aprobetxatzeko eta bikoiztasunak ekiditeko.

ZER EGIN BEHAR DA ARAZOAK DAUDENEAN?

- *Sorta edo aleren bat galdu da.* Erreklamatu ostean errekuperatzen ez bada, liburutegi eskatzailea galduta dagoena lortzeaz arduratuko da. Argitalpena agortuta izango balitz beste antzeko beste baten ale kopuru bera erosi beharko lituzke, Ignacio Aldecoa Kultura Etxekoei eta Elena Revillari galdetu ondoren.
- *Sorta egoera txarrean itzuli da.* Sorta erabilezin geratu bada, aurreko puntuan azaldutakoari jarraituko zaio.
- *Bi liburutegik sorta berbera eskatzen dute data berdinetarako.* Google Driveko egutegian erreserba sartu duen liburutegiari lehenetsuna emango zaio.
- *Hirugarren batzuei utzi diegu sorta eta ez digute epean bueltatu. Zer egingo dugu?* Eskatu duen liburutegia sortaren itzulketaz arduratu behar da. Beste liburutegi batek material horiek hurrengo hilabeteetarako erreserbatu baditu, liburutegi mailegu-hartzaileak ohartaraziko die bere erabiltzaileei ezin izango dela mailegua luzatu. Itzultzen ez badute, dagokien zigorra jarri beharko zaie, eta liburutegiak sorta hori edo beste antzeko bat (agortuta izanez gero) erosi beharko du. Kaltea jaso duen liburutegiari beste sorta bat maileguan eskainiko zaio.
- *Sortaren ABSYSNETeko fitxan, Google Driveko Egutegian edo sorten zerrendetan akatsen bat dago.* Elena Revillari eta Jon Etxaideri jakinarazi behar zaie, haiek zuzentzeko.
- *Google Driveren ezin naiz sartu. Zer egin dezaket?* Gogoratu Google Drive Gmail posta-kontu bati lotuta dagoela. Kontu hori

liburutegiak Irakurketa Klubetarako duena da. Arazorik baduzu, Elena Revillarekin jarri harremanetan.

- *Ez dut gogoratzen nire erabiltzailea edo nire pasahitza.* Irakurketa Klubetarako erabiltzailea "ik" letrez bukatzen da beti. Pasahitza "ikluba" letrez hasten da. Arazorik baduzu, Elena Revillarekin jarri harremanetan.
- *Klubetako funtzionamenduari buruzko beste zalantza batzuk ditut.* Edozein zalantza Liburutegi Zerbitzura bidali ahal da (Elena Revillarentzat).
- *Klubetako funtzionamenduari buruzko iradokizun/kexa bat aurkeztu nahi dut.* Ekarpenen, kexen edo iradokizunen bat egin nahi badute, liburutegiek bidali behar dute Liburutegi Zerbitzura edo, Zerbitzuan inor ez badago, momentu horretan indarrean dagoen Komisioaren kide bati (harremanetarako datuak **Google Driven** sartuta daude).

OHARRA: Sorten mugimenduekin loturik dauden intzidentziak Kultura Etxearen Gmail posta elektronikoaren bidez jakinaraziko dira. Egunero bi aldiz begiratzen da posta elektroniko hau. Eskaerak egiaztatzeko, itzulketak iragartzeko, eta abar telefonoz deitzea saihestu behar da. Arazo larri bat gertatzen denean bakarrik telefonoz abisatu behar da.

Harremanetarako pertsonak:

Elena Revilla e-revilla@euskadi.eus

Jon Etxaide casadeculturaignacioaldecoa@gmail.com